



UNIBERTSITATEA ETA IKASKETA PLAN BERRIAK

zure bizitzaren plangintza:

zure **etorkizunaren**

protagonista izatea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

PERTSONA HELBURU  
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

zure ikasketaren  
protagonista  
izango zara

## PLAN BERRIEK...

4 URTEAN SOILIK GRADU  
BERRIETAKO BAT LORTU AHAL  
IZANGO DUZU, KASU HAUETAN  
IZAN EZIK: ARKITEKTURAREN  
OINARRIAK, FARMAZIA ETA  
ODONTOLOGIA (5 URTE), ETA  
MEDIKUNTZA (6 URTE).

prest

jartzen zaituzte

# prest

jartzen zaituzte

- \_ Aukera gehiago izango duzu lan egiteko... nahi duzun lekuan.
- \_ Ikasi era dinamikoan eta kooperatiboan, zure parte-hartzean oinarritutako metodo aktiboen bidez.
- \_ Prestatu mundu globalizatuan lan egiteko eta, horretarako, ikasi hizkuntzak (ingeleza, adibidez) eta menderatu teknologia berriak.

- \_ Lortu pertsonarteko gaitasunak, funtsezkoak baitira zure lanbiderako.
- \_ Bihurtu pertsona %100 profesionala, jarrera aktiboa eta autonomia duena.
- \_ Garatu zure erantzukizun - eta elkartasun - balioak.

A group of students in a library or study area are gathered around a laptop. A young man in the foreground is smiling and looking at the screen. Other students are visible in the background, some looking at the laptop. The scene is brightly lit, suggesting a modern educational environment.

# ikasketa ibilbide berria

ZURE LANBIDE-ETORKIZUNA ZIURTATZEN DUENA

Unibertsitate-ikasketak bi mailatan egituratzen dira:  
GRADUA ETA GRADUONDOKOA.

Ikaslearen lana eta ikasketa neurtzeko unitatea Europar Kreditua da (ECTS).

## **GRADUA**

UNIBERTSITATE-  
HEZKUNTZAKO  
LEHEN MAILA

## **4 URTEAN SOILIK LAN-MERKATUAN SARTU AHAL IZANGO ZARA**

Helburu hau dauka: zu prestatzea, bai lan egiteko, bai zure unibertsitate-  
prestakuntza jarraitzeko.

240 kredituko iraupena dauka.

Iraupen hori 4 urteko epeari dagokio, eta epe horretan gradu berrietako bat lortu  
ahal izango duzu, kasu hauetan izan ezik: Arkitekturaren Oinarriak, Farmazia eta  
Odontologia (5 urte), eta Medikuntza (6 urte).

## **ECTS**

EUROPAR KREDITUA  
zu zara sistemaren  
erdigunea

ECTS-ek lan-karga neurtzen dute, hau da, zure ikasketa-planean programatutako  
helburuak gainditzeko behar dituzun orduen kopuru osoa; plan horretan, eskola-  
orduak ez ezik, ikasten, mintegietan, lanak egiten, praktketan, azterketetan eta  
abarretan emandakoak ere sartzen dira.

ECTS bat 25 edo 30 orduren parekoa da. Ikasturte bakoitzean, ikasten eman  
beharreko orduen kopuru osoa hau da: 1.500 eta 1.800 ordu bitartekoa = 60 ECTS.

ECTS kredituak inoiz ez dizu gehiegizko lana ezartzen, irakasgai jakin batean  
ematen dituzun orduak neurtzen eta kontuan hartzen dituelako.

**ECTS-AK ZURE IKASKETA-PLANAREN HELBURUAK  
GAINDITZEKO GUZTIRA ERABILTZEN DITUZUN ORDUAK  
NEURTZEN DITU**

# eta ni, nola sartuko naiz unibertsitatean?

**PLAZEN ADJUDIKAZIOA**  
Berdinketa gertatuz gero,  
lehenetasuna izango du egin nahi  
dituen ikasketen ezaguera-adarrari  
lotutako ikasgai baten azterketa  
Fase Orokorrean egin duen ikasleak.

## Batxilergoa ala baliokidea behar duzu

Gradu-ikasketetan hasteko, **beharrezkoa da Batxiler-titulua edo baliokide bat izatea** eta unibertsitatean sartzeko proba gaindituta edukitzea. Titulua Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako zein ikastetxetan lortu, ikastetxe hori atxikita dagoen unibertsitate publikoan egingo da sarbide-proba. Atzerriko espainiar ikastetxe publikoetako batetik bazatoz, proba UNEDen egingo duzu, zure ikastetxea aipatutakoa ez den beste unibertsitate bati atxikita egon ezean, orduan horretan egin beharko baituzu.

## Unibertsitate- sarbidea **BALDINTZAK**

Egoera hauetako batean egotea:

- 1\_ Batxiler-titulua izatea eta unibertsitatean sartzeko proba gainditzea.
- 2\_ Europar Batasuneko estatu kideetako hezkuntza-sistemetatik datorren ikaslea izatea, betiere unibertsitatean sartzeko bere herrialdean eskatzen diren baldintzak betez gero. Unibertsitateara sartzeko kredentziala, UNEDek emandakoa, aurkeztu behar da.
- 3\_ Atzerriko beste hezkuntza-sistema batzuetatik datorren ikaslea izatea eta unibertsitatean sartzeko proba gainditzea.
- 4\_ Goi-mailako Teknikari-titulua edo Goi-mailako Kirol Teknikari-titulua izatea.
- 5\_ 25 urtetik gorakoa izatea eta sarbide-proba gainditzea.
- 6\_ 40 urte eta ikasketa-esparruan aitortutako lanbide-gaitasuna izatea.
- 7\_ 45 urtetik gorakoa izatea eta sarbide-proba gainditzea.
- 8\_ Ofizialki ezagututako unibertsitate-titulu bat izatea.
- 9\_ Helburu den unibertsitateak ezagututako 30 kreditu izatea, homologatu gabeko unibertsitate-ikasketak atzerrian egin dituztenen kasuan.
- 10\_ Hezkuntza Lege Organikoa ezarri aurreko Espainiako Hezkuntza Sistemaren ordenazioen arabera unibertsitatean sartzeko moduan egotea.

eta ni,  
**nola sartuko**  
naiz unibertsitatean?

# ¿ZERTARAKO UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA?

Proba horren xedea da ikustea zer-nolako heldutasun akademikoa daukazu, zenbat dakizun, zer trebetasun lortu dituzun Batxilergoan eta zer gaitasun daukazu unibertsitate-ikasketak ondo egiteko.

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE-PROBA

**2 FASEAK: OROKORRA ETA ESPEZIFIKOA**

## **OROKORRA** derrigorrezkoa

Gaztelania eta Literatura  
Euskara eta Euskal Literatura  
Filosofiaren Historia edo Historia  
Atzerriko Hizkuntza (alemana, frantsesa, ingelesa, italiara, portugesa)  
Modalitate-ikasgaia, Batxilergoko 2.ean aukeratu beharrekoa

**Beharrezkoa da 4ko batez besteko nota gainditzea**

## **ESPEZIFIKOA** nota igotzeko hautazkoa

Batxilergoko 2. mailako 4 modalitate-ikasgai gehienez ere (ez dira izango Goi-mailako teknikari edo goi-mailako kirol-teknikarien titulueterako jarritako gai-zerrendakoak edo Fase Orokorreko ariketa egiteko aukeratutako ikasgaiak).

**5eko nota gainditzen duten ikasgaiak hartuko dira kontuan**

eta ni,  
**nola sartuko**  
naiz unibertsitatean?

## ZENBAT PUNTU BEHAR DITUT SARBIDE-PROBA GAINDITZEKO?

Unibertsitaterako sarbide-proba gainditzeko beharrezkoa da nota **5 edo handiagoa** izatea. Fase Orokorreko kalifikazioaren %40aren eta Batxilergoko batez besteko notaren %60aren arteko batez besteko haztatuaren bidez lortzen da.

**ONARPEN OROKORRERAKO NOTA =  $0,6 \times \text{BBN} + 0,4 \times \text{FOK}$**

BBN: Batxilergoko Batez Besteko Nota  
FOK: Fase Orokorreko Kalifikazioa

- Fase Orokorra gainditzeak mugarik gabeko balioa du. Ez dago deialdi-mugarik proba gainditzeko.
- Urtero bi deialdi daude, eta Fase Orokorreko kalifikazioa nahiz Fase Espezifikoko edozein ikasgaitan lortutakoa hobetzeko aurkez zaitezke.
- Gogorazi behar duzu sarrera-proba ohiko deialdian edo aurreko ikasturteetan gainditu duten pertsonak lehentasuna dutela plazak adjudikatzeko orduan.



eta ni,  
**nola sartuko**  
naiz unibertsitatean?

# NOIZ KOMENI ZAIT PROBA ESPEZIFIKOA EGITEA?

## EGIN NAHI DIREN IKASKETETAN ESKAEREN KOPURUA ESKAINITAKO PLAZENA BAINO HANDIAGOA DENEAN

Kasu honetan, hau egin behar da onarpenerako nota kalkulatzeko: unibertsitatean sartzeko notari (Fase Orokorreko kalifikazioaren %40 eta Batxilergoko batez besteko notaren %60) Fase Espezifikoetan gaingaitutako ikasgaietako 2 notarik onenak gehitu behar zaizkio, bi nota horiek haztatze-parametro batez biderkatu ondoren. Ariketan gutxieneko 5eko nota gaingituz gero soilik hartuko dira kontuan nota horiek.

Onartzeko nota sartu nahi den unibertsitatearen eta graduaren arabera aldatu ahal izango da. Lortutako kalifikazioek proba gaingitu eta hurrengo bi ikasturteetan dute balioa.

$$\text{ONARPEN ESPEZIFIKORAKO NOTA} = 0,6 \times \text{BBN} + 0,4 \times \text{FOK} + a \times \text{O1} + b \times \text{O2}$$

BBN: Batxilergoko Batez Besteko Nota

FOK: Fase Orokorreko Kalifikazioa

O1 eta O2: Fase Espezifikoko gaingaitutako ikasgaietako bi notarik onenak

a eta b: Fase Espezifikoko ikasgaien haztatze-parametroak

Eta Goi-mailako teknikari-titulua badut, edo Goi-mailako Kirol-arloko teknikari-titulua?

Unibertsitatean sartzeko, ez duzu sarbide-proba egin behar izango. Plaza mugatuak dituen Gradu-titulazio bat ikasi nahi baduzu, Unibertsitatera Sartzeko Probaren Fase Espezifikora aurkeztu ahal izango zara, zure Onarpen-Nota hobetzeko.

Nola kalkulatu dute nota plaza-muga duten gradu-titulazioetan sartzeko?

**ONARPEN-NOTA = ZBBN + a x 01 + b x 02**

**ZBBN:** Prestakuntza Zikloko Batez Besteko Nota.  
**01 eta 02:** Fase Espezifikoko gainditutako ariketen bi nota onenak.  
**a eta b:** Fase Espezifikoko ariketak neurtzeko parametroak.

## ZENBAT ONARPEN-NOTA IZAN DITZAKET?

Nota bat Fase Orokorren azterketa baino ez baduzu egiten. Fase Espezifikoren azterketa ere egiten baduzu, notetako bat hartuko da kontuan, egin behar dituzun ikasketen arabera.

eta ni,  
**nola sartuko**  
naiz unibertsitatean?

## Jasonek arkitekturaren Oinarriak ikasi nahi ditu

Batxilergoan 6,75eko batez besteko nota lortu zuen, eta 6,05eko nota lortu du Fase Orokorreko kalifikazioan. Unibertsitatean sartzeko 6,47ko nota du. Fase Espezifikoko aurkeztu da nota hura hobetzeko, eta Biologian 7,2, Kimikan 5, Matematikan 6 eta Fisikan 7 notak lortu ditu. Haztatu ondoren, 2 nota onenak hartuko dira kontuan. Aukeratutako unibertsitatearen ustez, Fisika eta Matematika dira Arkitekturaren Oinarriak ikasteko arlo egokienak, eta 0,2ko haztapena ematen die. Hortaz, 7 nota bider 0,2 egingo da, eta 6 bider 0,2. Haren onarpen-nota hau da: 9,07 (6,47 + 2,60). Medikuntza egitea erabakiko balu, eta aukeratutako unibertsitatearen ustez gai egokienak Biologia eta Kimika direla kontuan hartuta, onarpen-nota hau izango luke: 8,91

### ADIBIDEA

Batxilergoko batez besteko nota: 6,75  
Fase Orokorreko Kalifikazioa:  
Batez bestekoa: 6,05  
Fase Espezifikoa:  
• Biologia: 7,2  
• Kimika: 5  
• Fisika: 7  
• Matematika: 6

Onarpen orokorrerako nota = 6,47  
 $0,6 \times 6,75 + 0,4 \times 6,05$   
Medizinarako onarpen-nota = 8,91  
 $0,6 \times 6,75 + 0,4 \times 6,05 + 7,2 \times 0,2 + 5 \times 0,2$   
Arkitekturaren Oinarrietarako onarpen-nota = 9,07  
 $0,6 \times 6,75 + 0,4 \times 6,05 + 6 \times 0,2 + 7 \times 0,2$

**ONARPEN-NOTA =**  
 **$0,6 \times \text{BBBN} + 0,4 \times \text{FOK} + a \times 01 + b \times 02$**

# BATXILERGOKO ZER IKASGAI INTERESATZEN ZAIZKIT AUKERATU NAHI DUDAN KARRERARAKO?

Gradu-titulu bakoitza ikasketa guztiak biltzen dituzten 5 ezaguera-adarretako batean sartuta dago. Ezaguera-adarrak hauek dira: Arteak eta Giza Zientziak, Zientziak, Gizarte-Zientziak eta Lege-Zientziak, Osasun-Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura.

Era berean, Batxilergoko 2. eneko ikasgaiak dagokien adarrari daude lotuta.

**2014-2015** ikasturterako eta hurrengoetarako EHU Unibertsitatean sartzeko probaren Fase Espezifikoko modalitate-ikasgaietako kalifikazioak haztatzeko parametroak

0,1

0,2

## Arteak eta Giza zientziak

BATXILERGOKO IKASGAIAK




TITULU UNIBERTSITARIOAK

- Análisi musikala II
- Ikus-entzunezko kultura
- Marraketa artistikoa II
- Marraketa teknikoa II
- Diseinua
- Enpresaren ekonomia
- Geografia
- Grekoa II
- Musikaren eta dantzaren historia
- Artearen historia
- Latina II
- Literatura unibertsala
- Gizarte zientzietan aplikatutako matematika II

# Gizarte-zientziak eta Lege-zientziak

BATXILERGOKO IKASGAIAK

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
- Gizarte Antropologia
- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak
- Ikus-entzunezko Komunikazioa
- Kriminologia
- Zuzenbidea
- Ekonomia
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- Gizarte Hezkuntza
- Finantzak eta Aseguruak
- Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa
- Geografia eta Lurralde Antolakuntza
- Negozioen Kudeaketa
- Marketina
- Pedagogia
- Kazetaritza
- Publizitatea eta Harreman Publikoak
- Lan Harreman eta Giza Baliabideak
- Soziologia
- Gizarte Langintza




- Analisi musikala II
- Biologia
- Lurraren eta ingurumenaren zientziak
- Ikus-entzunezko kultura
- Marraketa artistikoa II
- Marraketa tekniko II
- Diseinua
- Enpresaren ekonomia
- Fisika
- Geografia
- Grekoa II
- Musikaren eta dantzaren historia
- Artearen historia
- Latina II
- Literatura unibertsala
- Matematika II
- Gizarte zientziei aplikaturiko matematika II
- Kimika

TITULU UNIBERTSITARIOAK

# Zientziak

BATXILERGOKO IKASGAIAK

- Biologia
- Biokimika eta Biologia Molekularra
- Bioteknologia
- Elikagaien Zientzia eta Teknologia
- Ingurumen Zientziak
- Fisika
- Geologia
- Matematika
- Kimika



- Biologia
- Lurraren eta ingurumenaren zientziak
- Elektroteknia
- Fisika
- Matematika II
- Kimika
- Industria-teknologia II


TITULU UNIBERTSITARIOAK



# Osasun- Zientziak

## BATXILERGOKO IKASGAIAK

- Erizaintza
- Farmazia
- Medikuntza
- Giza Elikadura eta Dietetika
- Odontologia
- Psikologia
- Fisioterapia



- Biologia
- Lurraren eta ingurumenaren zientziak
- Fisika
- Matematika II
- Kimika


TITULU  
UNIBERTSITARIOAK

Lurraren eta ingurumenaren zientziak

# Ingeniaritza eta Arkitektura

## BATXILERGOKO IKASGAIAK

- Arkitekturaren Oinarriak
- Ingurumen Ingeniaritza
- Ingeniaritza Zibila
- Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritza
- Ingeniaritza Elektrikoa
- Ingeniaritza Elektronikoa
- Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
- Eraikuntza Ingeniaritza
- Geomatika eta Topografia Ingeniaritza
- Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza
- Industria Teknologiaren Ingeniaritza
- Informatikaren Ingeniaritza
- Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- Itsas Ingeniaritza
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioa
- Ingeniaritza Kimikoa
- Industria Kimikaren Ingeniaritza
- Telekomunikazioaren Ingeniaritza Teknikoa
- Energia Berriztagarrien Ingeniaritza



- Biologia
- Lurraren eta ingurumenaren zientziak
- Marrazketa tekniko II
- Diseinua
- Enpresaren ekonomia
- Elektroteknia
- Fisika
- Matematika II
- Kimika
- Industria-teknologia II

TITULU UNIBERTSITARIOAK

Lurraren eta ingurumenaren zientziak

# UPV/EHUko

## GRADUKO IKASKETEN

### ESKAINNTZA

#### 2014-2015 IKASTURTERAKO

JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK	Euskal Ikasketetako Gradua	Letren Fakultatea
	Ingeles Ikasketetako Gradua	
	Filologiako Gradua (Hispaniarra, Alemaniarrak, Klasikoa eta Frantsesa)	
	Itzulpenjintza eta Interpretazioko Gradua	
	Historiako Gradua	Arte Ederren Fakultatea
	Artearen Historiako Gradua	
	Arteko Gradua	
	Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharbertzeaz buruzko Gradua	
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	
Filosofiako Gradua		
ZIENTZIAK	Kimikako Gradua	Kimika Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea
	Ingurumen Zientzietako Gradua	Farmazia Fakultatea
	Elkagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	
	Biologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
	Bioteknologiako Gradua	
	Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	
	Fisikako Gradua	
	Geologiako Gradua	
Matematikako Gradua		
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA LEGE-ZIENTZIAK	Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea Zuzenbide Fakultatea, Bizkaiko Atala
	Kriminologiako Gradua	Zuzenbide Fakultatea
	Negozioen Kudeaketako Gradua	Bilboko Enpresa Ikasketen UE
	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	Donostiako Enpresa Ikasketen UE
		Gasteizko Enpresa Ikasketen UE
	Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea Lan Harremanen UE
	Ekonomiako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
	Finantza eta Aseguruetako Gradua	
	Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	
	Marketinoko Gradua	
	Enpresen Kudeaketa eta Marketin Gradua	Bilboko Merkataritza Ganberako UE (ikastegi atxikia)
	Gizarte Langintzako Gradua	Gizarte Langintzako UE
	Kazetaritzako Gradua	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
	Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	
	Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	
	Soziologiako Gradua	
	Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	
	Haur Hezkuntzako Gradua	Leioako Irakasleen UE Donostiako Irakasleen UE Gasteizko Irakasleen UE
	Lehen Hezkuntzako Gradua	Leioako Irakasleen UE
		Donostiako Irakasleen UE Gasteizko Irakasleen UE
Gizarte Hezkuntzako Gradua	Leioako Irakasleen UE Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	
Pedagogiako Gradua	Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	
Gizarte Antropologiako Gradua		
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	
Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	Letren Fakultatea	

# UPV/EHUko

## GRADUKO IKASKETEN

### ESKAINNTZA

#### 2014-2015 IKASTURTERAKO

JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE Gasteizko Ingeniaritza UE Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa
	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE Gasteizko Ingeniaritza UE Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa
	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa
	Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritza UE
	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE Gasteizko Ingeniaritza UE
	Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritza UE
	Arkitektura Teknikoko Gradua	Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa
	Ingeniaritza Zibileko Gradua	Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE
	Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE
	Meataritza eta Energia Teknogiaren Ingeniaritzako Gradua	Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE
	Telekomunikazioaren Ingeniaritza Teknikoko Gradua (Izena aldatzear dago)	
	Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua	
	Industria Teknogiaren Ingeniaritzako Gradua	
	Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	
	Itsas Ingeniaritzako Gradua	
	Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Gradua	Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa
	Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
	Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	Informatika Fakultatea
	Kimika Ingeniaritzako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
	Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	Elgoibarko Txandakako Ingeniaritza Eskola (ikastegi atxikia)
Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua		
OSASUN-ZIENTZIAK	Medikuntzako Gradua	Medikuntza eta Odontologia Fakultatea
	Odontologiako Gradua	
	Fisioterapiako Gradua	
	Erizaintzako Gradua	Leioako Erizaintzako UE Donostiako Erizaintzako UE Gasteizko Erizaintzako UE (ikastegi atxikia)
	Farmaziako Gradua	Farmazia Fakultatea
	Giza Elikadurako eta Dietetikako Gradua	
	Psikologiako Gradua	Psikologia Fakultatea
JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA LEGE-ZIENTZIAK	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua +Zuzenbideko Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea

**Informazio  
gehiago:  
UPV/EHU**

Izena: Unibertsitaterako sarbidea  
Harremanetarako helbidea: [acceso@ehu.es](mailto:acceso@ehu.es) ([sarrera@ehu.es](mailto:sarrera@ehu.es))  
Telefona: 946015555  
[www.ehu.es](http://www.ehu.es)

# MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GRADUKO IKASKETEN ESKAITZA 2014-2015 IKASTURTERAKO

JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA LEGE-ZIENTZIAK	Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Gradua	Enpresa Zientzien Fakultatea
	Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	
	Ikus-Entzunezko Komunikazioa Gradua	Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
	Haur Hezkuntza Gradua	
	Lehen Hezkuntza Gradua	
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteetan Gradua	Gastronomia Zientzien Fakultatea (Basque Culinary Center)	
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Mekanikako Ingeniaritza Gradua	Goi Eskola Politeknikoa
	Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua	
	Industria Antolakuntzako Ingeniaritza Gradua	
	Industria Elektronikako Ingeniaritza Gradua	
	Informatikako Ingeniaritza Gradua	
	Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua	
	Energiaren Ingeniaritza Gradua	
	Ekoteknologia eta Prozesu Industrialetan Ingeniaritza Gradua	
	Ingeniaritza Biomedikoa Gradua	
JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Informatikako Ingeniaritza Gradua + Telekomunikazio Sistemen Gradua	Goi Eskola Politeknikoa

**Informazio  
gehiago:  
MONDRAGON**

Izena: Errektoretza  
Harremanetarako helbidea: [info@mondragon.edu](mailto:info@mondragon.edu)  
Telefonoa: 943712185  
[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

# DONOSTIAKO INGENIARIEN TECNUN ESKOLAKO ESKAITZA 2014-2015 IKASTURTERAKO

JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Industria Teknologien Ingeniaritzako Gradua	Ingeniarien Eskola
	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	
	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	
	Industri Elektronikako Ingeniaritzako Gradua	
	Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua	
	Komunikazioko Elektronikako Ingeniaritzako Gradua	
	Industri Antolakuntzako Ingeniaritzako Gradua	
	Industria Diseinu eta Produktuen Garapeneko Ingeniaritzako Gradua	
	Ingeniaritza Biomedikoko Gradua	
JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua + Informatikako Ingeniaritza Gradua	Ingeniarien Eskola

**Informazio  
gehiago:  
TECNUN**

Izena: Ainara Díez  
Harremanetarako helbidea: [adiez@tecnun.es](mailto:adiez@tecnun.es)  
Telefonoa: 943219877  
[www.tecnun.es](http://www.tecnun.es)



# DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO GRADUKO IKASKETEN ESKAINZA 2014-2015 IKASTURTERAKO

JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK	Euskal Filologiako Gradua	Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (Bilboko campusa)
	Giza Zientzietako Gradua	
	Hizkuntza Modernoetako Gradua	
	Hizkuntza Modernoetako eta Kudeaketako Gradua	
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA LEGE-ZIENTZIAK	Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea (Bilboko campusa)
	Lehen Hezkuntzako Gradua	Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea "Begoñako Andra Mari" Irakasleen U.E. (ikastegi atxikia)
	Haur Hezkuntzako Gradua	"Begoñako Andra Mari" Irakasleen U.E. (ikastegi atxikia)
	Gizarte Hezkuntzako Gradua	Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (Bilboko campusa)
	Komunikazioko Gradua	Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (Donostiako campusa)
	Nazioarteko Harremanetako Gradua	Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (Bilboko campusa)
	Gizarte Laneko Gradua	Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea
	Turismoko Gradua	
	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua (egiaztatze-fasean, baimentzeko)	Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (Bilboko campusa)
	INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Informatikako Ingeniaritzako Gradua
Industri Ingeniaritzako Teknikoko Gradua (egiaztatze-fasean, baimentzeko)		
Industria Antolaketako Ingeniaritzako Gradua		
Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritzako Gradua		
OSASUN-ZIENTZIAK	Psikologiako Gradua	Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (Bilboko campusa)
JAKINTZA ARLOAK	GRADUKO TITULAZIOAK	IKASTEGIA
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA LEGE-ZIENTZIAK	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea (Bilboko campusa) Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
	Nazioarteko Harremanetako + Zuzenbideko Gradua	Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (Bilboko campusa) Zuzenbide Fakultatea (Bilboko campusa)
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua + Lehen Hezkuntzako Gradua (egiaztatze-fasean, baimentzeko)	Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (Bilboko campusa)
	Zuzenbideko Gradua + Komunikazioko Gradua	Zuzenbide Fakultatea (Bilboko campusa) Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (Donostiako campusa)
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA LEGE-ZIENTZIAK	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Industri Ingeniaritzako Teknikoko Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (Bilboko campusa) Ingeniaritza Fakultatea (Bilboko campusa)
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Informatikako Ingeniaritza Gradua	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (Donostiako campusa) Ingeniaritza Fakultatea (Bilboko campusa)

Informazio  
gehiago:  
DEUSTO

Izena: Nuevos Estudiantes  
Harremanetarako helbidea: [nuevosestudiantes@deusto.es](mailto:nuevosestudiantes@deusto.es)  
Telefona: 944139386 (Bilboko campusa); 943326308  
(Donostiako campusa)  
[www.nuevosestudiantes.deusto.es](http://www.nuevosestudiantes.deusto.es)